

ZIENTZIA ETA ERBESTEA NAZIOARTEKO BATZARRA

Lehenengo zirkularra

Izenburua: Zientzia eta Erbestea Nazioarteko Batzarra (1936-1960)

Datak: 2017ko azaroaren 7tik 11ra

Lekua: Donostia (Euskal Herria). Euskal Herriko Unibertsitatearen Karlos Santamaria Liburutegiaren Areto Nagusian. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Areto Nagusian.

Erakunde antolatzaileak: Hamaika Bide Elkarte eta Euskal Herriko Unibertsitatea.

Gaiak: Batzarrak erbesteratu errepublikanoen lana zientzia hutsen eta esperimentalen arloetan aztertuko du, besteak beste, medikuntzan, psikiatrian, albaitaritzan, biologian, matematikan, fisikan, kimikan, ingeniartzetan, ekonomian eta arkitekturan.

Ponentziak: Ponentziak bai erbesteratuen biografien ingurukoak baita ere erbesteratu horiek egindako lanen ingurukoak izan daitezke. Hori bai, ikuspuntu biografikoko lanak direnean, orain arte gutxi aztertutako pertsonalitateei buruzkoak izan behar dira.

Proposamenak: Aurkezteko epea 2017ko uztailaren bian bukatuko da. Proposamenean izenburu probisional bat eta edukien laburpen bat jaso beharko da (20-30 arteko lerrokoak). Proposamenarekin batera egilearen aurkezpen txiki bat eta bere lana edo aktibitatea egiten duten instituzioaren izena azaldu beharko da ere bai (gehienez bost lerro).

Uztailan zehar, Batzorde Zientifikoaren iritzia entzun ondoren, interesatuei informatuko zaie ea proposamena onartu den ala ez.

2017ko abuztuaren 31 baino lehen, egile onartutakoek ponentziaren zirriborroa aurkeztu beharko du; arazo desberdinen ondorioz, gerta daiteke zenbait kasutan, zirriborro hori aurkeztea ezinezkoa izatea. Kasu horietan aurretik batzorde antolatzaileari informatu beharko zaio. Behin betiko testua abenduaren 15 baino lehen aurkeztu beharko da, horrela 2018an zehar liburua plazaratzeko aukera izateko.

Behin betiko testuak: Ezingo dute 16 folio baino gehiago izan, espazio t'erdiz idatzita. Lanak Word programan bidaliko dira, Times New Roman 12 estiloan. Ahal bada, material grafikoa ere eskertuko da baina beti copyright arazoak ez dituztenean.

Testuak jatorrizkoak izan beharko dira, aurretik argitaratu edo beste batzarretan aurkeztu gabekoak.

Batzarraren hizkuntzak: Harremanetan euskara eta gaztelania izango dira. Ponentziak, bestetik, frantsesez, ingelesez, galegoz edo katalanez idatzita aurkeztu daitezke.

Batzarraren batzorde zientifikoa: Pedro Miguel Etxenike jauna, Rafael Bengoa jauna, José Maria Bengoa jauna, Jon Arrizabalaga jauna eta Iosu Chueca jauna.

Batzorde antolatzailea: Mari Karmen Gil Fombellida andrea, Maria Luisa San Miguel andrea, José Angel Ascunce jauna eta Jose Ramon Zabala jauna.

Matrikula: 50 eurokoa izango da. Horren truke parte-hartzaileek batzarraren karpeta eta liburu sorta bat jaso dute. Hamaika Bide Elkarteko bazkideek, langabetuek eta ikasleek ez dute kuota hori ordaintzeko beharrik.

Kontaktu helbideak:

hamaikabide@gmail.com

659 36 77 47

Berio pasabidea 17 , 3.b. 20018 Donostia

Informazio gehiago: www.hamaikabide.eus

Donostian, 2017ko martxoaren 20a

